

248/2006 DEKRETUA, azaroaren 28koa, sasoiko langileentzako ostatueta bete beharreko gutxieneko baldintza materialak eta funtzionalak eta haien baimentzea, erregistroa eta egiazta-pena arautzen dituena.

Ordenamendu juridikoak argi eta garbi ezartzen du botere publikoak behartuta daudela oztopo guztiak kentzera eta beharrezkoak diren ekimenak sustatzera bertan bizi diren atzerritarrek, nazioko biztanleen baldintza berdinetan, etxebizitza egokiaz gozatzeko edota bizileku duina izateko aukera izan dezaten.

Horrela, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 25. artikuluko 1. idatz-zatiak eta 1966ko abenduaren 16an onartu zen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikuluko 1. idatz-zatiak diote pertsona ororen eskubidea dela etxebizitza egokia izateko moduko bizitza-maila izatea; Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 1949ko C97 Hitzarmenak, langile etorkinei buruzkoak, 6. artikuluko 1. idatz-zatian dio hitzarmena berresten duten herrialde guztiek bertako biztanleei nahiz legezko egoeran dauden etorkinei tratua eman behar dietela, besteak beste, etxebizitzaren arloan; orobat, LANEren 2001eko C184 Hitzarmenak, nekazaritzako segurtasunari eta osasunari buruzkoak, 19. artikuluko b) idatz-zatian dio agintari eskudunek sasoiko langileentzako ostatueta bete beharreko arauak ezarri behar dituztela; bestalde, Espainiako Konstituzioko 47. artikulua etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko eskubidea bermatzen die espainiar guztiei eta, Atzerritarrei buruzko Lege Organikoaren 3. artikulua aplikatuta, eskubide hori Espainiako estatuan bizitzeko baimena duten pertsona guztiengana zabaldu da; Atzerritarrei buruzko Lege Organikoaren 42. artikuluko 2. idatz-zatiaren arabera, lan-baimenak emateko, «sasoiko langileei duintasun- eta higiene-baldintza egokietan ematen zaiela ostatu bermatu behar da»; halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 9. artikuluarri jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzak bertako herritarren oinarritzako eskubideak eta betebeharrak egoki gauzatu direla zainduko du, etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko eskubidea barne, Atzerritarrei buruzko Lege Organikoaren 3. artikulua baita Erkidegoan bizi diren atzerritarrei ere aplikatu beharrekoa.

Hala ere, sasoiko langile atzerritarren errealitateak eta, proportzio askoz ere txikiagoan, baita sasoiko langile nazionalenak ere, gabezia handiak ditu sasoiko lanak egin bitartean dituzten ostalduen baldintzei dagokienez.

Azken urteotan, sasoiko lanaren eskaria hazi egin da. Hainbat arrazoi direla medio (Espainiako lan-merkatuaren segmentazioa; nekazaritzako soldata txikiak; langile nazionalen landakoak baino hobeto ordaindutako, gizarte-prestigio handiagoko eta gogortasun fisiko gutxiagoko lanak lortzeko aukerak izatea ahalbidetzen dieten gizarte- eta familia-babeseko mailak, etab.), ia sasoiko langile guztiak etorkin atzerritarrek dira, bereziki Europako Erkidegokoak. Langileen eskariaren gehikuntza hori modu desordenatuan gertatu da eta hainbat arazo ekarri ditu: legezkotasun-arazoak langileen bizileku-egoeretan, gizarte-plangintzako arazoak talde horiek aldi baterako eskatzen dituzten ondasun- eta zerbitzu-beharrei dagokienez, besteak beste, hezkuntza-ondasun eta zerbitzuak, prestakuntzakoak, ostatu eta etxebizitzakoak.

Halaber, egiaztatu da oso garrantzitsua dela gizarte- eta talde-egiturek sasoiko langileen talde batzuegan duten eragina. Izan ere, hainbeste gabezia dituen testuinguru horretan, beren hierarkia-harremanak mantendu egiten dira.

Arazo horretaz jabetuta eta horren ildotik, Eusko Legebiltzarrak, 2002ko abenduaren 22ko osoko bilkuran, Eusko Jaurlaritzari eta, zehazki, arlo honetan zerikusitua gehien duen sail gisa, Nekazaritza eta Arrantza Sailari eskatu zion Sasoiko Langileen Arretarako Plan Integrala presta zezala eta Erakunde Arteko Mahaia sor zezala, planean aurreikusitako zereginak koordinatzeaz ardura

zedin. Eta halaxe gauzatu zuen esandakoa: apirilaren 29ko 97/2003 Dekretua argitaratu zuen, horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Sasoiko Lanaren Erakunde Arteko Mahaia sortu eta arautzeko, eta 2004ko ekainaren 30ean Sasoiko Langileen Arretarako 2004-2007ko Plan Integrala onartu zen.

Une honetan, eta Eusko Legebiltzarrean hasitako lanari jarraipena eman eta hori are gehiago zehazteko, eta adierazitako arrazoiengatik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak premiazkotzat hartzen dute sasoiko ostatuei dagokienez dagoen gabezia edota desegokitasunaren aurrean zuzenean esku hartzea dekretu honen bidez. Honek Euskal Autonomia Erkidegoko sasoiko langileen ostaturako etorkizunean erabiliko diren higiezin gutxienerako baldintzak finkatzen ditu eta behin-behineko aldia ezartzen du, egun xede hori duten baina arauak betetzen ez dituzten higiezinak egokitzeke.

Era berean, dekretu honen bidez sail horiek EAEko Inmigrazio Planarekin eta horren zati den EAEko Sasoiko Lanaren Planarekin bat etorri egun gauzatzen ari diren ekintzak edo gauzatuko direnak indartu nahi dituzte. Ekintza horien helburua sektoreari aplikatu beharreko lan-arauak eta Gizarte Segurantzakoak erabat bete behar direla sustatzea da, baita enplegatzaileek eurek langileak zuzenean eta jatorrian kontrata ditzaten bultzatzea ere, bitartekariak erabiltzeari uko eginez.

Hori horrela, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak hala proposatuta, eta sektore interesdunari kontsulta egin ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko azaroaren 28ko bilkuran hori aztertu eta onartu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatze-gietan sasoiko zerbitzuak eskaintzen dituzten langileei ostatu ematera bideratutako higiezin eta ekipamendu guztiek bete behar dituzten gutxienerako baldintzak zehaztea da.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Dekretu honetako I. eranskinean jasotako baldintzak bete beharko dituzte sasoiko langileei ostatu ematera bideratutako higiezin edo ekipamenduek, haien tipologia eta izaera edozein dela ere, nola eraikuntza berrikoak izan hala funtzionamenduan egon dekretu hau indarrean sartu aurretik. Baldintza horiek betetzea nahitaezkoa izango da higiezin nahiz ekipamenduaren baten ganean jabetza-tituluren bat edo bestelako titulu juridikoren bat duten pertsona fisiko edo juridikoentzat, izan publikoak edo pribatuak.

2.– Ondorio guztietarako, ekipamendu horiek, publikoak direnean eta bertan gizarte-laguntzako zerbitzuak eskaintzen direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemarekiko ostatu-zentro laguntzailetzat hartu ahal izango dira.

3. artikulua.– Eskabideak.

1.– Jabetzan edo beste titulu juridikoren baten pean duten higiezin edo ekipamendua sasoiko langileei ostatu emateko egokitzen har dadin nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailera atxikitako erregistroan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan aurkeztuko dute eskabidea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzari zuzenduta.

2.– Eskabideak III. eranskinean jasotako ereduari jarraiki aurkeztuko dira, bertan zehazten diren agiriekin batera. Agiri horiek jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izango dira.

3.– Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak sumatzen badu aurkeztutako eskabidean akats edo okerren bat dagoela, edo ez dituela betetzen dekretu honetan ezartzen diren betekizunak, edo agiriak falta direla, eskaeragileari jakinaraziko dio eta 10 eguneko epea emango dio arazoa konpontzeko. Epe hori igaro eta arazoa konpondu ez badu, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 71. artikulua ezarritakoarekin bat etorritz.

4.– Eskaera-orrian eta honekin batera aurkeztutako agirietan jasotako datuak aldatuz gero, nola baimena eman aurretik hala ondoren, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, gertatu eta gehienez hamar eguneko epean.

4. artikulua.– Higiezinak sasoiko langileei ostatu emateko egokitzat hartzeko baimenaren ebazpena.

1.– Baimena emateko edo ukatzeko ebazpena eman aurretik, beharrezko irizten diren frogatzeak eta egiaztapenak egingo dira, baita «in situ» bisitak ere interesdunaren instalazioetara, baimena eskatzeko xede den jarduera garatzeko dituen lokalak, instalazioak eta bitartekoak ikuste aldera. Jardun horietan oinarrituta txosten teknikoa egingo da eta, bertan, zehatz-mehatz jasoko dira egindako frogatzeak eta horien emaitzak.

2.– Sasoiko langileei ostatu emateko egokitzat jotzen den higiezin edo ekipamendu gisa onartu edo ukatzeko ebazpena Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariak emango du eta gehienez hiru hilabeteko epean jakinaraziko da, eskabidea Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailera atxikitako erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta berriazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek beren eskabidea onartu dela ulertu ahal izango dute Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 43. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

3.– Ebazpenak, gutxienez, honakoak jasoko ditu: sasoiko langileei ostatu emateko egokia den higiezin edo ekipamendutzat hartzea onartu edo ukatzen den eta baimen horrek zein egunetik aurrera izango dituen ondorioak.

4.– Dekretu honetan ezarritako baldintzak eta betekizunak ez betetzeak baimena kentzea eragingo du Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez.

5. artikulua.– Sasoiko langileei ostatu ematera bideratutako higiezin edo ekipamenduen tipologia.

Eraikin, bizileku eta ekipamenduen tipologiak honela sailkatzen dira:

a) Enplegatzailearen etxebizitzari atxikitako bizilekuak eta antzekoak (nekazaritzako eta abeltzaintzako ekipamendua gordetzera bideratuta zeuden eraikin zaharrak).

b) Ostatu-zentro publikoak.

c) Izaera pribatuko beste higiezin eta eraikin batzuk, enplegatzaileak bere borondatez eta aldi baterako sasoiko langileei ostatu emateko erabiltzen dituenen.

7. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko sasoiko langileei ostatu ematera bideratutako higiezinaren eta ekipamenduen erregistroa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko sasoiko langileei ostatu ematera bideratutako higiezinaren eta ekipamenduen erregistroa sortu eta arautzen da.

2.– Erregistroa publikoa eta bakarra da Euskal Autonomia Erkidegorako eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailera atxikita dago, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzaren menpe. Horren eginkizuna sasoiko langileei ostatu ematera bideratutako higiezinak eta ekipamenduak inskribatzea da, betiere, dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez horretarako baimendu badira. Erregistroa Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzako langileek artatuko dute eta zuzendaria izango da horren arduraduna eta hori zuzentzeaz eta kudeatzeaz arduratuko dena.

3.– Erregistroko inskribatzea ofizioz egingo du horren arduradunak. Bertan, sasoiko langileei ostatu ematera bideratutako higiezinak eta ekipamenduak jasoko dira, betiere, horiek halakotzat hartu eta baimendu badira, dekretu honen 4. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, lehen xedapen iragankorrean adierazitakoaren kaltetan izan gabe.

4.– Erregistroa dekretu honetan eta hori garatzeko eman daitezkeen gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera eraenduko da.

5.– Erregistroa inskripzio-liburu bat izango da eta, bertan, sasoiko langileei ostatu ematera bideratutako higiezinak eta ekipamenduak adieraziko dira, betiere, horiek dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta horretarako baimena eman bazaie Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez.

6.– Inskripzio-liburuak honako datu hauek jaso ditu idatziz:

- Titularra
- Kokapena
- Tipologia
- Plaza-kopurua

7.– Inskripzioa eta horri dagokion zenbakia sasoiko langileei ostatu emateko egokitzat hartzen diren higiezinaren edo ekipamenduen gaineko titulartasuna edo bestelako titulu juridikoren bat duten pertsona fisiko edo juridikoei jakinaraziko zaie, betiere, beren ustategia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatuta badago.

8.– Inskribatuta daudenek eguneratuta izan beharko dituzte erregistroko datuak eta gertatzen den edozein aldaketa horren arduradunari jakinaraziko diote, hori gertatu eta hamar eguneko epean. Horretarako, beharrezko agiri guztiak ekarriko dituzte.

9.– Dekretu honen 4. artikuluko 4. idatz-zatia aplikatuta sasoiko langileei ostatu emateko egokia den higiezinatzat hartzeko baimena kentzen bada, kasuan kasuko higiezinaren eta ostatuaren inskripzioa ofizioz deuseztatuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, sasoiko langiletzat hartuko da indarreko legeriarekin bat etorritz lan egiteko adina duen pertsona, Langileen Estatutuko

15.1.a artikulua babesean kontratatuta badago, kanpaina-aldietan nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan aritzen bada, nola enplegatzaile batentzat hala batentzat baino gehiagorentzat, garai berean edo ondoz ondoko garaietan, eta ohiko bizilekua lantokiaren edo lantokien kokaleku ez den beste udal-mugarte batean baldin badu.

Bigarrena.– Kanpamentuak kasuan kasuko udal-ordenantzen berariazko baimena badute eta udal-araudian bertan ezarritako baldintzak betetzen badira bakarrik izango dira egokiak sasoiko langileentzat egonaldia egin eta gaua igarotzeko.

Hirugarrena.– Enplegatzailearen etxebizitzari atxikitako ostatu eta bizilekuak baimendu, erregistratu, katalogatu eta ikuskatzearen ondorioetarako, dekretu honetan ezarritakoari helduko zaio eta, bertan aipatzen ez denerako, berriz, EAeko gizarte-zerbitzuen baimentzea, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen duen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan ezarritakoari.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Denboraldi osoan edo zati batean sasoiko langileei ostatu emateko erabiltzen diren eta, dekretu hau indarrean sartzean, funtzionamenduan dauden higiezin eta ekipamendu guztiek 7. artikuluan aipatutako erregistroan inskribatzea eskatu behar dute, hori sortu eta sei hilabeteko epean.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan aipatutako higiezinak eta ekipamenduek ez badituzte betetzen inskribatu ahal izateko dekretu honen I. eranskinean ezarritako gutxieneko baldintzak, xedapen honetan adierazitako denboran ere egin ahal izango dute eta bost urteko gabealdia izango dute baldintzak betetzeko. Aldi hori igaro eta dekretu honetan ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzeko birgaitzerik egin ez bada, ofiziozko baja emango zaie sasoiko langileei ostatu emateko higiezin eta ekipamenduei buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko erregistrotik. Izaera hori ere galduko dute eta, beraz, ezingo dituzte hasieran aurreikusitako ostatu-mota ematera bideratutako higiezin edo ekipamenduaren funtzioak bete.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko azaroaren 28an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

I. ERANSKINA

HIGIEZINEK ETA GAINERAKO EKIPAMENDUEK BIZIGARRITASUNA BERMATZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- 1.– Bizilekuek bizigarritasun- eta higiene-baldintzak beteko dituzte
 - Ura, zuzeneko argia eta aireztapena, sukaldea eta bainugela izango dituzte.
 - Ukuilu eta hondakindegietatik urrun egongo dira. Kasuan kasuko udal-araudian ezarritakoa hartuko da aintzat.
 - Estaldura bukatuez babestutako paretak izango dituzte; sukaldean eta bainugelan iragazgaitzak izango dira. Zoruan, material solidoak, erraz garbitzeko modukoak eta irristagaitzak erabiliko dira.
 - Zortzi pertsona baino gehiagorentzako bizitokietan, emakume eta gizonentzat bereizitako komunak eta logelak egongo dira.
- 2.– Logelek gutxienez 4 m²-ko azalera izango dute ohe bakoitzeko eta bi altuerako ohatze bakoitzeko, eta 5 m³-ko bolumena erabiltzaileko. Altuerak gutxienez 2,5 m-koak izango dira; hala ere, lehendik zeuden lokaletan edo berritutakoetan 2,2 m-koak izatea onartuko da, aurretik behar bezala justifikatzen bada. Arroparako armairuak edo takilak izango dituzte. Pasabideetan, ezingo da oherik jarri.
- 3.– Bainugeletan, konketak eta dutxak egongo dira, bai eta komunak ere, bat zortzi pertsonako, hain zuzen. Eraiki berriak diren ostatueta, komunak erabat itxita egongo dira. Gainera, zuzeneko aireztapen naturala edo kanpora begirako aireztapen artifiziala izan beharko dute.
- 4.– Sukaldeetan, eraiki berriak edo berritutakoak baldin badira, kea erakarri eta kanporatzeko sistema bat egongo da. Gainerako sukaldeetan, esandakoa posible ez bada, aireztapen nahikoa dagoela bermatu beharko da. Sukaldeetan, halaber, sukaldea bera, hozkailua eta higiezinean egon daitekeen gehieneko pertsona-kopuruarentzat beharrezkoak diren sukaldeko tresnak egongo dira.
- 5.– Bizilekuak edo ekipamenduak egongela edo bizikidetzako gunea izango du, han ostatu hartuta dauden langile-kopuruarentzat azalera nahikoa duena. Eremu hori jangela gisa nahiz sukalde gisa erabili ahal izango da.
- 6.– Ur beroa instalatuko da konketetan, dutxetan eta sukaldean.
- 7.– Arropa-garbigailu bat eta arropa esekitzekoa egongo dira erabilgarri.
- 8.– Lokal edo ekipamenduetan, bizitokiko leku guztiak tenperatura egokian mantenduko dituen berokuntza-sistema autonomoa egongo da.
- 9.– Hondakin- edo kloaka-urak estolda-sare orokorrera isuriko dira. Hori posible ez bada, kanpoaldera isuriko dira, araztu ondoren, betiere.
- 10.– Botika-kutxa bat egongo da, behar bezala hornituta.
- 11.– Eraikinen eta haien instalazioen oinarritzko kalitate-eskakizunei dagokienez, eraikuntza berrikoetan edo berritutakoetan, Eraikuntza Ordenatzeko Legean eta Eraikingintzaren Kode Teknikoan ezarritako baldintzak bete beharko dira. Hortaz, honako hauek beteko dira:
 - DB-SE. Egiturazko segurtasuna

- DB-HE. Energia aurrezte
- DB-SI. Suteen aurkako segurtasuna
- DB-HS. Osasungarritasuna
- DB-HR. Zarataren aurkako babesa
- DB-SUA. Erabilera- eta sarbide-segurtasuna

12.– Eraikinen eremuan edo horietatik nahikoa gertu, telefonoa edo antzekoa egongo da.

13.– Hondakinak egunero bilduko dira, zonaldeko biztanleentzako baldintza berdinetan.

14.– 30 pertsonari edo gehiagori ostatu eman diezaieketen instalazioetan, erizaintzarako gune espezifiko bat egongo da, ohe batekin 30 erabiltzaileko edo zatikiko. Erizaindegian, konketa, komuna eta lehen sorospenetarako botika-kutxa izango ditu; botika-kutxa horrek kasurik arruntean lagundu ahal izateko nahikoa material izango du.

15.– Instalazio elektrikoa baimendutako instalatzaile batek egingo du, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan ezarritakoarekin bat etorritik (RD 842/2002).

16.– Gas-instalazioak edo gas-aparatuak martxan jartzeko baimena izan beharko dute gasinstalazioek, eta baimendutako instalatzaile batek emango du baimen hori, betiere gas-erregaiak banatu eta erabiltzeko erregelamendu teknikoak onartzen duen uztailaren 919/2006 Errege Dekretuarekin bat etorritik.

17.– Suteen aurkako babesa eta prebentzioa. Balio anitzeko hautsezko 21A/113B su-itxalgailu eramangarriak egongo dira lokalean, eta itxalgailu-kopurua kalkulatzeko, irizpide hau aplikatu beharko da: edozein ebakuazio-gunetatik su-itxalgailu batera egin beharreko distantzia gehienez 15 metrokoa izango da. Begi-bistan egongo dira su-itxalgailuak, erraz eskuratzeko moduan; haien goialdea ez da 1,70 m-tik gora egongo. Lokaletan, bestalde, larrialdiko argiztapen-instalazioa egongo da, irteera-ateetan eta ebakuazio-bideetan jarritako aparatu automatikoen eta seinale normalizatuen bidez.

18.– Erantzukizun zibileko aseguruia izatea, ostatuaren barneko edozein eratako ezbeharrei aurre egiteko.

19.– Ostatu eraiki berrietan, lehen okupazioko udal-lizentzia beharko da.

20.– Instalazioak aldian-aldian garbitu beharko dira, erabiltzaileen esku jartzen direnean, higiene-baldintza egokietan aurkitu ditzaten.

21.– Argibide-taula bat egongo da, eta, bertan, era askotako informazioa jarriko da ikusgai: gai sindikalak, larrialdiko telefonoak (112, suhiltzaileen telefonoak), eta abar.

III. ERANSKINA

SASOIKO LANGILEEI OSTATU EMATEKO HIGIEZIN ETA/EDO EKIPAMENDUETARAKO BAIMEN-ESKABIDEA

Eskatzailea/Solicitante

Izen abizenak edo merkataritza-izena:.....

IFK-NAN (zenbaki eta hizki guztiekin):.....

Izaera Juridiko Banakoa SA SM ENS Koop. OE Bestelakoak:.....

Helbidea:..... zk.....

Posta-kodea:..... Udalerria:.....

LH edo probintzia:.....

Telefona:..... Faxe:.....

Posta elektronikoa:..... Web orria:.....

Ordezkaririk legala/Representante legal:

Izen abizenak edo merkataritza-izena:.....

IFK-NAN (zenbaki eta hizki guztiekin):.....

ESKAERA OSATZEKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR:

- a) Eskatzailearen NANaren edo IFKren fotokopia
- b) Higiezinaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria eta, hala behar izanez gero, higiezinaren jabeak berau erabiltzeko emandako baimena.
- c) Deskribapen-memoria, higiezinaren kokalekua eta mota zehaztuko dituen, 5. artikuluan arabera sailkapenarekin bat etorriz, betiere: a) etxebizitzari atxikitako bizitokiak; b) ostatu publikoko zentroa eta c) bestelako higiezin eta eraikin pribatuak, bai eta ostatuko gehieneko plaza-kopurua ere. Halaber, ostatuaren plano eta krokisa eta haren antolamendua, bizitokiaren dimentsioak zehaztuta.

Vitoria-Gasteiz, 20.....eko.....ren.....a.

LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENeko ZUZENDARIA

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliatu zaitezke, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz, hura baita tratamenduaren arduraduna (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).